

IZARO SUSPERREGI (2daideko koordinatzailea. Urtxintxa)

Jean Jacques Rousseau idazle eta filosofo frantziarraren hitzak ekarri nahi nituzke gaurkoan:

Ez ditugu haurrak ezagutzen; ditugun ideia faltsuen gainean zenbat eta gehiago jardun, orduan eta hutsegite gehiago egiten ditugu. Jakintsuenek gizona bilatzen dute haurrengan, pentsatu gabe haurra gizona baino lehen datorrela

Hitz hauek entzunaz, haur eta gazteak etorkizuneko herritar gisa ikusi beharrean, beraien ingurunean aldaketak gauzatzeko gai diren herritar gisa ikusiz gero, haien ikuspuntua kontuan hartzeak gizartea hobetzen lagun gaitzakeela konturatuko gara. Haur eta gazteek eskubide, betebeharrak eta ardurak dituzte. Eman diezaiegun gizarte gaietan parte hartzeko eskubidea, betebeharrak eta ardura.

Bidaiden, gazteek beraien berezko jakin-min, inizatiba eta sormen gaitasunak berraurkitu eta sustatzen dituzte. Taldean oinarritutako metodologiak harremana du oinarri; identitatea, parte hartzea, jarrerak eta baloreak jorratuz.

Gizarteak, komunitateak, Antxok, pertsona motibatuak behar ditu, irekiak, jakin-min handikoak, ekintzaileak eta jarrera eraikitzaileak dutenak. Hori dela eta, bizi garen mundu honetan arrakastarako giltzarria da norberaren nortasunean sakontzeko gaitasuna, kontua ez da jakitea baizik eta izaten jakitea. Pertsonak izan behar du ezagutzaren eraikitzaile. Etengabe aldatzen den gizarte honetan ezinbestekoak bihurtu dira hausnarketarako joera, kontzientzi soziala eta norbere burua gidatzeko gaitasuna.

JON GOYA: 2daideko gaztea

Bidaidek ingurune hurbila, kasu honetan Antxo, aztertze eta hobeto ezagutzeko aukera ematen digu. Gure herriaren ezaugarriak aztertuz, dagoeneko ditugun gauzen eta ez ditugunen kontzientzia hartzen digu. Gure burua errealitate horretan kokatzen laguntzen digu eta hausnarketarako bideak irekitzen dizkigu. Bidaideko gazteak eragile aktibo moduan kokatzen gara eta Antxoko errealitateari ekarpenak eta hobekuntzak egiteko aukera ematen digu. Taldean egiten dugun prozesu eraldatzailea da.

Taldeak ematen digu gure ideiak eta iritziak azaltzeko aukera, azalpenak modu egokian jantzeko aukera, besteen ekarpenen ondorioz aberasteko edo eta aldatzeko aukera. Harremanetarako beharrezkoak diren gaitasunak lantzen ditugu eta besteen lekuan jartzeko aukera ezin hobea ematen digu.

Errealitate horri ekarpenak egiteko garaian sormenak tarte berezia hartzen du, ideien munduari ateak irekitzeko momentua baita. Erabakiak hartzerako bideratutako prozesua da non adostutako eta hartutako konpromisoak gauzatu behar ditugun. Erabakiak erantzukizunez hartzeko trebakuntza jasotzen ari gara.

Ikasketa zerbitzu solidarioan oinarritzen da Bidaide. Garapen prozesu baten abiapuntua da, norberak landu dezan hemendik aurrera gizartean parte hartzeko berezko modua eta eraikitzen joan dadin norberaren bizitzan ibilbide konprometitua. Gure

komunitatearen parte izateko eta komunitatean parte hartzeko eredu bat da, bertako gertakizunetan eragile izateko eta besteen ongizateaz arduratzeko.

Gizartearen mesederako zerbitzu-proiektuak egiten ditugu, hau da, besteei mesede eginez ikasten dugu.

Gaur egun handia dugu guretzat eta espero dugu prestatutakoa zuen gustukoa izatea eta denon artean ongi pasatzea.

Pasaiaiko Alkatea: Amaia Agirregabiria

Arratsalde on, guztioi:

Lehenengo eta behin, gaurko ekitaldi honetan ikusitakoak sortzen didan poza adierazi nahi dizuet.

- Poza, adin tarte hain desberdinetako herritarrak elkarrekin ikusteak sortzen dit. Ez da oso ohikoa gazteak eta jubilatuek elkarrekin zerbait egiten ikustea. Jakizue, Alkate hau harro sentitzen dela elkartzeko hori Pasaian gertatzen dela ikustean.

- Poza sentitzen dut baita ere, gure herriko gazteak auzolanaren eta elkartasunaren balioak lantzen ari direla ikustean. Zuek gazteak auzolanean zuen komunitateko partaideei, jubilatuei gaurkoan, zerbitzu bat eskaini diozue gaur. Baina zuek ere, zerbait jaso duzue nagusienengandik, zuen herriari buruzko pasadizoak eta historiaak. Horixe da transmisio naturala. *Eman da jaso, jaso ta eman, elkartasuna da hori* dio Pirritx, Porrotx eta Marimototsen abesti batek. Horixe da zuek egiten ari zaretena, gazte eta jubilatuek elkartasunaren balioa lantzen eta herriari erakusten.

- Poz izugarria sortzen dit, era berean, generazio berriak euskaratik eta euskaraz ari direla ikusteak. Jubilatuek askok beste garai zailago batzuk bizi izan zituzten eta euskara galdu egin zuten. Zuek euskara berreskuratzeko aukera izan duzue eta hizkuntzaren bandera zuek zabaldu duzue. Aukera izan ez zuten jubilatuei euskarara hurbiltzen ere lagundu diezue gaurkoan.

- Eta azkenik, poza ematen dit, hemen dagoen giroa arnasteak. Segi ezazue giro hori zabaltzen herriko txoko guztietara.

Ez dut gehiegi luzatu nahi, meriendarari eta dantzari behar duen tarte ematea inportantea da eta.

Baina ez dut bukatu nahi ere eskerrak eman gabe. Benetan eskertu nahi dizuet gazteoi egin duzuen lana. Segi ezazue horrelaxe, auzolana eta elkartasuna euskaraz bizitzen. Gaur herriko gazteekin harro sentitzeko motiboa eman diguzue, jarraitu bide horretan handitzen.

Eskerrak eman nahi dizkizuet nagusienei ere, gazteen laguntzarekin gure historia bergogoratzeko eskaini diguzuen aukeragatik eta gazteekin elkarlanean aritzeagatik. Mila esker zuei ere.

Bukatzeko, diplomak banatuko dizkizuegu 2daideko gazteei, zerbitzu komunitate hau eskaintzeko prestakuntza jaso duzuela aitortzeko eta, segi dezala festak!